

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. UZTAILAREN 13AN MINISTROEN KONTSEILUAN ONARTUTAKO DEKRETU-LEGEAN BILTZEN DIREN MURRIZKETA BERRIAK
2. 2011N IBEX 35EKO KONTSEILARIEK BATAZBESTE 522.000 EUROKO ORDAINSARIAK IZAN ZITUZTEN
3. HEHan 94.000 PERTSONA DAUDE LANGABEZIAN INONGO PRESTAZIORIK KOBRATU GABE
4. EUSKAL KONTSEILU EKONOMIKO ETA SOZIALAREN 8/20 LEGEA: EDUKINETAN DEFIZITA ETA ATZERAKADA DEMOKRATIKOA
5. GEHIGARRIA: UZTAILAK 13KO 20/2012 ERREGE DEKRETU-LEGEAN BATUTAKO NEURRIAK, AURREKONTU EGONKORTASUNA BERMATZEKO ETA KONPETITIBITATEA BULTZATEKO

1. UZTAILAREN 13AN MINISTROEN KONTSEILUAN ONARTUTAKO DEKREU-LEGEAN BILTZEN DIREN MURRIZKETA BERRIAK

Joan den ostiralean Raxoiren gobernuak azken hamarkadetan eman diren gizartearekiko murrizketa handienak onartu zituen. Neurrien larritasuna, bi egun aurretik Diputatuen Kongresuan gobernu espainiarreko presidentek ezagutarazi zituenetik haratago joan da.

Neurri hauek Europar Kontseiluan (Europar Komisia eta EBkoak diren herrialdeetako gobernuak) maiatzaren 30ean onartu zituen gomendioak biltzen dituzte. Eurotaldeak baldintzatzen jarri ditu "gomendio" hauek gobernu espainiarrak 100.000 milioi euroko mailegua jasotzeko, gobernuak bankuei emango dien dirua. Hau da, gobernu espainiarrak nonbaitetik atera behar du bankuei oparitu dien dirua, eta hori gizarte eskubideen murrizketen, administrazio publikoko langileen soldaten murrizketen eta BEZaren igoseraren bitartez lortuko du.

Rajoyk erabakitako neurri garrantzitsuenak honako atal hauetan laburbiltzen dira:

I. SEKTORE PUBLIKOAN SOLDATA MURRIZKETEN NEURRIAK

a) **Sektore publikoko langileen 2012ko abenduako aparteko ordainsaria**, berariazko osagarrien ordainsari gehigarria edo bestelako ordainsari gehigarriak bertan behera utziko dituzte. Ez dago konpromezurik galera hau berreskuratzeko, murrizketa honetako zenbatekoak etorkizunean pentsio planen ekarpenekin edo jubilazioarako

gertakariak beteko dituzten aseguru kontratuetara bideratuko baitituzte 2/2012 Aurrekontuen egonkortasun Lege organikoaren arabera eta Estatutko Aurrekontu Orokorraren Legeak zehazten duenaren arabera. Hau da, etorkizunean erabakitzen dena.

b) Erabilera librekoegunak seitik hirura murriztuko dira eta oporraldiari dagokionez aurreikusitako 22 egunen behin behineko luzatzea ere ezabatzen da, gozatze eskubidearen formulazioan "gutxieneko" terminoa ezabatu ondoren.

c) Baimen sindikalak eta kredituak murriztuko dira, uztailaren 15etik aurrera langile funtzionario eta estatutarioen akordioetan eta hitzarmen kolektiboetan eta lan-kontratudun langileen akordioetan Langileen Estatutuan, Askatasun Sindikaletko Lege Organikoan eta EBEEan ezarritakoa baino haratago doazenetan.

d) Gertakari arruntengatiko behin behineko ezintasuneko osagarriak murrizten dira, uztailaren 15etik aurrera. **Administrazio Publiko bakoitzak**, bakoitzaren eskumenen barruan, langileen **prestazioak osatu** ahal izango ditu, beti ere muga hauen barruan:

- Lehenengo **3 egunetan** gehienez ordainsariaren **%50a**.
- **4.etik 20.era**, biak barne, behin behineko ezintasunagatiko osagarriarekin baturak ezin izango du **inolaz ere ordainsariaren %75a gainditu**.

e) Lan kontratudunen langile publikoen **negoziazio kolektiboan "egoera salbuespena"** ezartzen da. Langileei eragiten

dien lan hitzarmen eta akordioen betetzea ez da bermatzen "salbuespen kasuetan eta egoera ekonomikoen aldaketaren batek sortutako interes publikoaren zergaiti larrien ondorioz, Administrazio Publikoaren gobernu organoek sinatuta dituzten hitzarmen kolektibo edo akordioen betebeharrak suspenditzen edo aldatzen dituztenean, beti ere neurri hauek interes publikoa babesteko ezinbestekoak direnean". Egoera ekonomikoen aldaketaren batek sortutako interes publikoaren zergaiti larria dagoela olertuko da Administrazio Publikoak **neurri edo murrizketa planak, kontu publikoaren oreka neurriak edo defizit publikoa zuzentzeko neurriak erabaki behar dituztenean.** Hau da, momentuoro hitzarmen kolektiboak ez betetzeko aukera ematen da.

II. LANGABEZI PRESTAZIO ETA GIZARTERATZE ERRENTA AKTIBOAREN MURRIZKETA

a) **Langabezi prestazioaren zenbatekoa murriztuko da.** Zenbatekoa **%70ekoa izango da lehenengo 180 egunetan eta %50ekoa 181. egunetik aurrera** (orain arte %70ekoa zen lehenengo 180 egunetan eta %60eko 181. egunetik aurrera). Portzentai hauen kalkulua **2012ko uztailaren 15etik aurrerako langabezi egoeretatik** sortutako prestazioei aplikatuko zaie.

b) **Lanaldi partzialean dauden langileei langabezi prestazioa murriztuko diete.** Murrizketa hainbat bidetatik egingo da (prestazioaren zenbateko maximo eta minimoak azken 180 egunetan lan egindako orduen batzbestekoaren arabera murriztuko dira, prestazioaren kalkulua egiteko enpleguak aldatuko dituzte, etab.)

c) **Langilearen esku dauden %35eko kotizazio murrizketak ezabatuko dira,** zeintzuek, langabezi prestazioa garaian kudeaketa erakundeak ordaintzen zituen. . Beraz, langabezian dagoen perstonak ordaindu beharko du, prestazioa murriztuko zaiolarik. Murrizketa hau **2012ko uztailaren 15etik aurrerako langabezi egoeretatik** sortutako prestazioei aplikatuko zaie.

d) **Langabezia-sorospenetan murrizketa gogorrak.** 45 urte gorakoentzako sorospena kenduko dute, 52 urte gorakoentzako sorospena 55 urtetik gorakoentzako izango dira eta sarrera baldintzak gogortuko dituzte iraupenari eta errentari dagokionez. Lanaldi partzialekoen zenbatekoa ere murriztuko dute. Jubilazioarako kotizazioa ere murriztuko da, oinarritzat kotizazio minimoa hartuko dutelarik eta ez orain arteko minimo horren %125eko.

e) Langabezi prestazioeta sorospenak kentzeko aukera gehiago egongo dira.

f) Gizarteratze Errenta Aktiboaren murrizketa. Sarbide baldintzak gogortuko dira.

III- FOGASAREN BABESAREN ETA TRAMITAZIO SOLDATEN MURRIZKETA

a) Kaudimen gabezia edo konkurtsoan dauden enpresetako langileei **FOGASAK ordaintzen dituen soldata eta kalteordainen zenbatekoak murriztuko dituzte:** Soldatei dagokienez, ordaintzeke dauden soldaten gehiago zenbatekoa eguneko LGBaren bikoitzera murrizten da (orain arte LGBaren hirukoitzera) eta ordaintzeko dauden egunak 120 izango dira (orain arte 150). **Indemnizazioei** dagokienez FOGASAK bere gain hartuko duen tope maximoa **LGBaren bikoitzera murrizten da.**

b) Estatuari egiten zaioan tramitazio soldaten ordainketaren erreklamazio erregimena aldatzen da iraizpena bidegabetzat ematen denean **epai irmo** bitartez. Estatuak ordainduko ditu epai ebazpena eskaera egin zenetik 90 egun igaro ondoren egiten bada (lehen 60 ziren). Hau, uztailak 15ean epai ebazpenik ez daukaten erreklamazioengan aplikatuko da.

IV- MENPEKOTASUNeko PRESTAZIO EKONOMIKOEN MURRIZKETAK

Menpekotasun Legearen garapenak nolabaiteko prestazio ekonomikoak bermatu izan ditu. Bere egunean ELAk Legea gutxiegizkoa zela eta Hego Euskal Herriko erakundeen eskumenak inbaditzea kritikatu zuen.

Gure adierazpenen arabera Legeak ez zuen bideratzen gizarte zerbitzuen sistema publiko eta unibertsala garatzeko. Rajoyren gobernuak murrizketa hauek onartzeko orduan onartu zuen hobe zela gizarte zerbitzuak izatea prestazio ekonomikoak baino. Halaber, onartutako neurriak dauden prestazio ekonomikoak murriztera bideratu dituzte, gizarte zerbitzuak bultzatu beharrean. Beraz, erabateko murrizketa neurriak dira. Neurrien artean aipagarrienak dira:

a) Familiarteko zaintzarako eta profesionalak ez diren zaintzaileen **prestazio ekonomien murrizketak**. E Zenbatzekoa murrizten da (zenbait kasutan bereziki).

b) **Gizarte Segurantzaren aldaketak egongo dira profesionalak ez diren zaintzaileentzako**. Hemendik aurrera ez dira alta egoeran egongo, beharreko moduan hitzartuta zegoen

izenematea boluntarioa izatera pasatzen baita uztailaren 15etik aurrera (disp. adic. 8ª RDL).

Uztailak 15ean indarrean dauden zaintzaile ez profesionalen hitzarmen bereziak: mantentzea erabakitzen bada, 2012ko irailak 1etaik abenduak 31ra bitartean gizarte segurantzari kotizazioak oradaintzeko kuota osoaren %10eko murrizketa bat izango du, kuota osoaren %5a Estatutko Administrazioak ordainduko du eta gainontzeko %85a zaintzaile ez profesionalak hartuko du bere gain. **2013ko urtarrilak 1etik aurrera hitzarmen berezia zaintzaile ez profesionalak hartu beharko du bere gain.**

c) Prestazioen bateraezintasun erregimena ezartzen da. Horren arabera, prestazio ekonomikoak bateraezinak izango dira beraien artean eta etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin, egun eta gaueko zentro eta egoitza zerbitzuarekin eta zerbitzuak bateraezinak izango dira beraien artean.

d) Menpekotasun egoeran daudenen zerbitzu eta prestazioen aplikazioaren **egutegia atzeratzen da**.

V- BEZaren ETA ZERGA BEREZIEN IGOERA

Zergen inguruan hartutako neurriak, nagusiki, BEZari dagokionez, irailaren 1etik aurrera jarriko da martxan, era honetan:

Zerga tasa orokorra eta murriztua igoko dira, 18tik 21era era 8tik 10era hurrenez hurren.

Hainbat produktu eta zerbitzu zerga tasa bat izatetik beste betara pasatzen dira; zenbait produktu %8ko zerga ordaintzetik %21a ordaintzera pasatuko dira, hala nola, lorategiak, hostalaritzako zerbitzu mixtoak, antzoki, zirko eta espektakuluen sarrerak,

artistak diren pertsona fisikoek emandako zerbitzuak, hileta zerbitzuak, ileapaindegiak, telebista digitaleko zerbitzuak eta artelanen erosketak.

Beharrezkoak diren zerbitzu eta produktuetan %4ko zerga tasa mantzentzen da, ez delarik berdina gertazen, etxebizitza erosketetan eta erosketa ahalbideratzen duten etxebizitza alokairuekin, %4tik %10era pasatzen dira bi kasu hauek.

Erregimen bereziko baliokidetasun orsaingainaren tasak igoko dituzte, azken bezeroari saltzen dieten saltzaile autonomontzat beharrezkoa, %1 eta %4tik %1,4tik %5,2ra pasatzen direlarik, eta nekazaritzako erregimen bereziko ordaingainak %10 eta %8,5etik %12 eta %10,5era pasatzen direlarik hurrenez, hurren.

Tabakoaren gaineko zerga igotzen da 2012ko uztailaren 15etik aurrera.

PFEZa eta Sozietateen gaineko zerga aldatzen dira baina, aldaketa hauek ez dute efekturik izango HEHan, eskumenak Aldundienak baitira.

Energiari dagokionez, uztailaren 13an onartutako Errege Dekretu legeak dioenez, energiaren kontsumoagatik ordaintzen dugunagatik zergak igoko dira, prezioaren igoera ekarriko duelarik ondorioztat.

VI- SALMENTA ORDUTEGIEN LEGEDIARI DAGOZKION ALDAKETAK

Salmenta ordutegien aldaketa beste eraso

gogor bat da. Aldaketa garrantzitsuenak honako hauek dira:

- Erkidego Autonomoek ezin izango dituzte murriztu 90 ordu baino gutxiagora astegunetan salmenten irekiera ordutegiak asteko, orain arte 72 ordu ziren. L
- Igandeak eta jaiegunak. Gutxieneko 16 egun igande eta jaiegunetan. Erkidego Autonomoek ezin izango dute gutxieneko hori 10 egun baino gutxiagora murriztu (orain arte 8 egun ziren).
- Ordutegi berezidun saltokiak. Lurralde nazionalen saltokiak irekita edukitzeko egun eta ordutegiak aukeratzeko askatasuna izango dute gozotegiek, okindegiak, prestatutako jakiak saltzen dituzten saltokiak, prentsak, gasolindegiek, loredendek, mugatan dauden saltokiak, 300 metro karratu baino gutxiagoko saltokiak, eta gutxienez egunean 18 ordu irekita dauden 500 metro karratu baino gutxiagoko saltokiak.
- 012ko abenduak 31rarte indarrean jarraituko dute onartutako igande eta jaiegunetako egutegiak. Era berean, 2012ko beharpenak arautzen dituen egutegiak ere indarrean jarraituko du.

VII- BESTE NEURRI BATZUK

a) **Kontratazioan hobariak murriztuko dira.** Ezabatu egingo dute enpresek duten kontratazioarako hobarien eskubidea. Neurri hau indarrean sartuko da 2012ko abuztuan sortuko diren kuoten hobarien gain. Zenbait disposizio salbuetsita geratuko dira.

b) **Etxebizitza eta berrizte Estatuko Plangintza**

Errege Dekretu- lege hau indarrean jartzen den momentutik ezabatuko dira 2009-2012 Etxebizitza eta Berriztatze Estatuko

Plangintzak emandako maileguak. Onartze bidean dauden eskaerak ere bertan behera geratuko dira.

c) **Emantzipaziorako Oinarrizko Errenta.**

Errege Dekretu- lege hau indarrean jartzen den momentutik, **alokairuarekin zerikusia duten laguntzen zenbatekoa 147 eurokoa izango da.**

2. IBEX 35eko KONTSELARIAK BATEZBESTE 522.000 EURO JASO ZITUZTEN 2011n

Krisia “denon kontua” dela edo “barku berean goazela” milaka aldiz entzun dugu dagoeneko. Baina dirudienez, hau ez da horrela gertatzen ordainsariak eta soldatak ezartzeko garaian. Izan ere langileoi soldatak jaisteko esaten diguten bitartean, enpresa handietako kontseilariak 2011an batezbeste 2010ean baino 7.000 euro gehiago jaso dituzte.

Balore Merkatuen Batzorde Nazionalak (BMBN) Ibex 35ean dauden enpresetako Gobernu Korporatiboen Urteroko Txostena argitaratu berri du, eta bertan administrazio kontseilu ezberdinetako kontseilarien ordainsariak ikus daitezke.

Administrazio kontseiluak 2011an 263,4 milioi eurotako ordaina jaso dute, batezbeste 7,5 milioi, 2010ean baino %11 baino gehiago. 2009tik 22,4 milioi euro banatu dituzte Ibex-eko enpresetako kontseilu bakoitzean batezbeste.

Ibex 35eko enpresetako kontseilariak (505 dira denera, emakumezkoak 61 soilik) jasotzen duten dirutza izugarria da. 2011an batezbestekoa 521.628 eurotako izan da pertsonako, 2010ean baino ia 7.000 euro gehiago. Azken hiru urteetan (2009tik 2011ra) 1,7 milioi euro jaso dute batz besteko kontseilari bakoitzak BMBN-ren arabera.

Hauek dira Gobernuei ze politika egin agintzen dieten enpresariak, lan gehiago soldata txikiagoen truke egin behar dugula esaten dutenak. Esaten ez dutena administrazio kontseiluek urtean 11 bilera baino gutxiago egiten dituztela batezbeste, eta beraz, bilera bakoitzeko 48.000 euro inguru jasotzen dutela. Begi bistakoa da langileoi eskatzen diguten lehiakortasuna ez dela bilera hauetako berdina.

Hau posible da Gobernuek potere ekonomikoaren menpe lan egiten dutelako. Eta honen ondorio zuzena gizartearen pobretze orokorra da, gutxiengo gero eta poteretsuagoa den bat gero eta aberatsagoa egiten den bitartean. Enpresa hauetako zuzendariak bezala.

3. HEHan 94.000 PERTSONA DAUDE LANGABEZIAN IZENA EMANDA INOLAKO PRESTAZIORIK JASO GABE

Langabeziaren gorakada Hego Euskal Herriko gizartearen arazo handienteakoa da dudarik gabe. 2008ko abuztutik (krisia hasi zenetik) %95,2 igo da, 106.368 langabetu izatetik 207.586 langabetura, hau da, 101.218 pertsona gehiago langabezian izena emanda.

Datu hauek erakusten duten egoera gordinari gero eta langabetu gehiago inongo prestaziorik gabe dagoela gehitu behar zaio. Hau da, inolako diru sarrerarik gabe.

Zehazki, 2012ko maiatzean lanik gabeko pertsonen %44,5ak ez du inolako langabeziataririk jaso. Eta kotizaziopeko prestazioa (egindako kotizazioen arabera) guztien %33,8a izan da, kotizaziopekoa ez den prestazioa jaso duten %21,7aren aurrean (laguntzazkoak edo oinarrizko errenta,

kotizaziopeko prestazioak baino diru kopuru gutxiagoak beti ere).

Izan ere, inolako diru sarrerarik ez duen langabetu kopurua %179,2 igo da krisia hasi zenetik, 33.536 pertsonetatik 93.643ra pasaz 2012ko maiatzean, hau da, 60.107 pertsona gehiago.

PRESTAZIORIK GABEKO LANGABEEN
BILAKAERA. HEH, 2008-2012

Abuztua 2008	Maiatza 2011	Igoera
33.536	93.643	60.107

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

Gainera, prestazioren bat jasotzen dutenen arteko bilakaera ere okerrera doa. Zifra erlatiboetan kotizaziopeko prestazioa jasotzen dutenak gutxiago dira, kotizaziopekoa ez dena (zenbateko urriagoa dena) jasotzen dutenen kopurua handitu den bitartean.

Hau da, 2008an langabezia-prestazioren bat jasotzen zutenen %718ak kotizaziopekoa jasotzen zuen (eta kotizaziopekoa ez zena %28,2ak). 2012ko maiatzean berriz, kotizaziopekoa jaso dutenen kopurua %61a da (kotizaziopekoa ez dena izan dutenen %39aren aurrean).

Egoera larri honen aurrean Gobernuak eskaintzen duten erantzuna babes soziala, eta langabezia babes gehiago murriztea da, eta enpleguarentzat guztiz kaltegarriak diren murrizketak eta erreformak egitea. Ez da egoera honetan dagoen jendearen aldeko neurri bakar bat onartu.

Borondate politiko kontua da, eta hartua duten erabakia langabezia sariak murriztea, babes soziala txikiagotzea eta enplegua suntsitzea da.

4. EUSKAL KONTSEILU EKONOMIKO ETA SOZIALAREN 8/20 LEGEA: EDUKINETAN DEFIZITA ETA ATZERA KADA DEMOKRATIKOA

Joan den 2012ko maiatzaren 24an EHAAn Euskal Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren 8/2012 legea argitaratu zen.

Ondorengo puntuak baieztatzen dira:

a) Erabakiak hartzeko sistema eraldatzen da. Momentu honetatik aurrera erabakiak botu eskubidea duten bertaratutako gehiengoak hartuko dira, eta akordioak bertaratutako bosten aldeko botuaz hartu ahal izango dira. Orain arte talde bakoitzaren gehiengo zen beharrezkoa (sindikala, enpresariala eta hirugarren taldea), ezaugarri hauetako organo batentzat askoz ere formula egokiagoa.

b) Ponderatutako botuaren erizpidea ezabatzen da talde sindikalean, Lantalde edota Bilkuretan partehartzaile bakoitzak botu bat izango duelarik.

c) Ordezkaritza sindikala aldatzen da. Lege berriarekin, sindikaturen batek ez baldin baditu bere kideak izendatzen epe jakin batean, edo bere ordezkariak epean postuari uko egingo balioedo era jarraitu batean ez balitz EKESera joango, bere postuak gainontzeko erakunde sindikalen artean banatuko ziren beraien ordezkariaren arabera.

d) Organoaren funtzionamentuari dagokionez eta bere eraketa egokirako beharrezkoa izango da 12 kide eta eta lehendakariaren agerraldia. Bigarren deialdian nahikoa litzateke zortzi kide eta lehendakariaren agerraldiarekin.

e) Adituak Lehendakariak izendatuko ditu, nahiz eta orain arte taldeek izendatzen zituen.

ELAk 8/2012 legeari uko egitendio arrazoi hauengatik:

a) Egindako aldaketen helburua (bai EKESean eta CRLean, azken honen legea aurretik aldatu zen) Eusko Jaurlaritzak jarraitzen duen politikari estaldura ematea da (Confebask, CCOO eta UGTekin adostuta). Eusko JaurlaritzakELA eta LABen ordezkaritza UGT eta CCOOen artean banatu zuen, sindikatuen partehartze eskubideak bertan behera utzita. Hau ekintza erabat antidemokratikoa da.

b) Erakunde hauetan erabakiak hartzeko sistema aldatu, gehiengo sindikalaren iritzia aurka erabaki ahal izateko eta hori onartezina da. Erabaki garrantzitsuak soilik 5 kiderekin onartu ahal izateak argi uzten du erabakiak patronala eta gutxiengo sindikalak era erraz batean hartzeko erraztasuna dela.

c) Partehartzea bertan behera utzi dugunok noizbait bueltatuz gero erabakiak Confebask, UGT eta CCOOren artean hartzen jarraitzeko aurrerapausua da.

d) Beraz, EKES erakunde hutsa da, partehartze sindikalak jarraitzen ari diren politikei estaldura ematen diena. Langile eta gizartearen eskubideen murrizketak, aurrekontuen murrizketak gobernuak ezartzen ditu patronalaren oneritziak. Horri "elakrriketa soziala" deitzea, gustu txarreko txantxa bat dela esan genezake.

5. GEHIGARRIA: UZTAILAK 13KO 20/2012 ERREGE DEKRETU-LEGEAN BATUTAKO NEURRIAK, AURREKONTU EGONKORTASUNA BERMATZEKO ETA KONPETITIBITATEA BULTZATEKO